

DISONANCIAS. 2008/09 Edizioa

Artista eta enpresak, ikerketa zentroak edo erakunde publikoen arteko elkarlanaren emaitzen ustiapenaren inguruko aukerak.

2008/03/27an eguneratua

1. Sarrera

Sorkuntza intelektualen ukiezintasunari esker jabeak malgutasun handiarekin ustiatu dezake bere lana eta baita, denon interesen onerako, aldeek dituzten helburuekin erreminta (lizentzia edo ustiapen eskubideen lagapen kontratua) adostu ere.

Jarraian aurkezten diren banaketa ereduak ez dira katalogo itxi bat, ustiapen eskubideen lagapen erregimena ezartzeko helburuz, egileak eta enpresak har dezaketan eredu konkretu bat baizik.

Inguru honetan "sortzaile" eta "artista" hitzak bereizi gabe erabiliko ditugu, izan ere, dokumentuari enfasia ukaezinen sorkuntzan jartzen zaio, mota batekoa edo bestekoa izan. Era berean, "erakunde babesle" hitzak enpresa pribatuak (irabazi asmoarekin), Zentro teknologikoak (normalean Fundazioak) eta erakunde publikoak biltzen ditu, DISONANCIASen barruan 3 erakunde mota horiek dihardute-eta.

2. Ondasun ukiezinen eta ustiapen eskubideen sailkapena

Ondasun ukiezinen artean bi maila nagusi daude:

- Jabetza Intelektualarekin zerikusia dutenak: Obra artistikoa, zientifikoa eta literarioa (softwarea barne).
- Industria-jabetzarekin zerikusia dutenak: Industria-diseinua, Marka, Patenteak eta erabilera ereduak.

Ondasun horietako bakoitzaren ustiapen eskubideen edukia euren lege arautzaileetan zehaztuta badago ere, era orokorrean eta azalpen modura, honakoetan sailka daitezke:

- Erreproduzio eskubideak: Komunikazioa eta kopiak egitea ahalbidetuko duen euskarrian obra finkatzeko eskubidea.
- Banatzeko eskubideak: Originalak edo kopiak publikoaren eskura jartzea.
- Komunikazio publikorako eskubideak: Obra pertsona anitzen eskura jartzea, aurrez euretako bakoitzari alerik eman gabe (adibidez, telebistan pelikula bat emititzea)
- Eraldatze eskubideak: Obra originala aldatu berri bat egiteko (adibidez, arrakasta duen liburu batetik pelikula egitea).

Ustiapen eskubideen inguruko katalogo orokor hau proiektua aurrera eramateko sinatuko diren kontratu bakoitzean zehaztu egin beharko da, sinatzaileen interesen arabera eta jarraian proposatzen diren ereduaren haritik. Era berean, kontuan hartuko dira emaitza mota bakoitzarentzat (obra artistikoa, industria-diseinua, patenteak eta erabilera ereduak) araudi espezifikoan (Industria-jabetzaren Legea, Industria-diseinuaren Babes Juridikoaren Legea, Asmakizun Patenteen eta Erabilera Ereduen Erregimen Juridikoaren Legea) aurreikusten diren arau bereziak ere.

3. Kontratuzko aukerak DISONANCIASen

Sortzailea eta Erakunde Babeslearen arteko hitzarmen askatasuna handia da sorkuntza ukiezina delako, eta horregatik, aurkezten diren ereduak ez dira bakarrik, ohikoenak baizik.

Edozein kasutan eta dokumentu honen izaera orientagarria kontutan izanik, eredu orokorrak direla jakinarazi nahi dugu, eta kontratua sinatu duten aldean interesen arabera zehaztu beharko dira.

Lehenik eta behin, DISONANCIASek artistei elkarrekin egindako ikerketarengatik ordaintzen die. Emaitzaren jabetza intelektuala artistarena edo artistena da, edo proiektu bakoitzaren arabera, jabetza artista eta ikertzaileen artean banatzen da.

Jarraian aurkeztutako aukerak zerikusia dute honako honekin: erakunde babesleak ikerketaren emaitza komertzializatu, erabili edo ustiatuz gero, aldi bateko ordainketa jasoko luke artistak, ikerketatik ondorioztatutako prototipoen industria-jabetza eskubideak erakundearenak izan edo ez.

Parte hartuko duten erakundeei honako aukeren artean bat aukeratzeko eskatzen diegu, deialdira aurkeztuko diren artistek jakin dezaten zein baldintzatan erabiliko den ikerketaren emaitza. Baina modalitate zehatzak artista eta erakunde babeslearen artean negoziatuko dira gero.

* Interes orokorreko proiektua baldin bada (irabazi asmorik gabekoa) honakoa ulertzen da: ez artistak ez erakunde babesleak, ez dutela emaitzaren ustiapenetik etekin ekonomikorik jasoko, publikoki jakinaraziko dela copyleft eta creative commonsekin zerikusia duten mekanismoen bitartez, eta ez duela beste inork (ez pertsona fisikoek, ezta juridikoek ere) emaitza hori helburu komertzialekin ustiatuko. **A AUKERA** da.

* Merkataritza-izaerako proiektua baldin bada (irabazi asmoarekin) eta bere emaitzak ustiapen komertziala baldin bada:

B AUKERA: Ustiapen eskubideak (produkzioa eta merkaturatzea) erakunde babeslearentzat dira; hala ere, azken horrek artistari ordainduko dio oroharreko zenbatekoa, bi aldean artean negoziatu beharreko zenbateko batzuen arabera.

C AUKERA: Ustiapen eskubideak (produkzioa eta merkaturatzea) erakunde babeslearentzat dira; hala ere, azken horrek artistari ordainduko dio ustiapenetik lortutako irabazien proportzioan, bi aldean artean negoziatu beharreko modalitate batzuen arabera.

D AUKERA: Ustiapen eskubideak erakunde babeslearentzat dira, emaitza komertzializatuz gero, artistarentzat ordainketa gehigarririk egin gabe.

Kasu guztietan artista/ek ikerketaren emaitzak helburu artistikoetarako erabili ditzake(te), hau da, edizio mugatuko lanen produkzioaren barruan, edo erreprodukzio digitala erabiliz gero, zabalkundea ez da konpetentzia izan beharko erakunde babeslearen erabilera komertzialarentzako.

Aldeen arteko akordioan honako hau jasotzea gomendatzen dugu: erakunde babesleak emaitzen ustiapenari ekiteko aldi baterako muga; horrela, erakundeak ez baldin baditu emaitzak erabiltzen baimena emango zaio artistari merkaturatzeko beste bide batzuk bilatzeko.

Jabetza intelektualaren gaineko legearen arabera autoretza lagaezina da, eta beraz, berau aipatzean egileak jaso behar dira.

Aukeren laburpen-taula:

Aukerak	Egileak	Emaitzen ustiapena	Artistari ordainketa (*)
A	Soilik sortzailea edo Sortzailea eta Enpresaren artean	Copyleft ustiapen eredua (**): Creative Commons lizentzia. No Comercial Share Alike	Ordainketa gehigarririk gabe.
B	Soilik sortzailea edo Sortzailea eta Enpresaren artean	Erakunde Babesleari lagatzea: Esklusiboa Eskubideen iraupen osoa Mundu osoa Ustiapen eskubide guztiak	Oroharreko zenbatekoan.
C	Soilik sortzailea edo Sortzailea eta Enpresaren artean	Erakunde Babesleari lagatzea: Esklusiboa Eskubideen iraupen osoa Mundu osoa Ustiapen eskubide guztiak	Ustiapen irabazien proportzioan.
D	Soilik sortzailea edo Sortzailea eta Enpresaren artean	Erakunde Babesleari lagatzea: Esklusiboa Eskubideen iraupen osoa Mundu osoa Ustiapen eskubide guztiak eraldaketa izan ezik	Ordainketa gehigarririk gabe.

(*). Artistei, elkarrekin egindako ikerketan izandako partehartzearen arabera ordaintzen zaiela kontutan izanik, zutabe honek soilik ustiapen eskubideak lagatzeagatik ordainketari egiten dio erreferentzia.

(**). Informazio gehiago lortzeko Copyleftaren erabilera eskuliburua jaisi daiteke honako web orri honetatik: www.manualcopyleft.net (Traficantes de sueños-ek editatua).

Beste erreferentzia batzuk:

Jabetza Intelektualaren Legea: <http://civil.udg.edu/normacivil/estatal/reals/Lpi.html>

Industria-diseinuaren Babes Juridikoaren Legea: <http://civil.udg.edu/normacivil/estatal/reals/L20-03.htm>

Marken Legea:

http://www.oepm.es/cs/Satellite?c=Normativa_C&cid=1150364394719&classIdioma= es es&pagename=OEPM Site%2FNormativa_C%2FtplContenidoHTML

Asmakizun eta Erabilera Ereduen Erregimen Juridikoaren Legea:

http://www.oepm.es/cs/Satellite?c=Normativa_C&cid=1150304955034&classIdioma= es es&pagename=OEPM Site%2FNormativa_C%2FtplContenidoHTML